



FUNTSEZKO JARDUERAK

Eklothes Nile Celaya, Unai Cortés, Aingeru García, Naia Rodríguez eta Eire Zuluagak sortu dugunez, enpresaren sailak gure artean banatuko ditugu organigraman ikus daitekeen bezala.

Enpresaren zuzendaria Aingeru García izango da, eta enpresaren jarduera guztiak koordinatzeaz arduratuko da.



Hornikuntza sailaren zuzendaria eta ekoizpen sailaren zuzendaria Unai Cortés izango da, eta bere funtzioa fabriketara plastikoa eramatea izango da, gero plastikoarekin produktuak sortzeko.



Giza-baliabide sailaren zuzendaria Eire Zuluaga izango da, eta Konpainia osatzen duten pertsonekin zerikusia duten zereginak eta ekintzak antolatzeaz, planifikatzeaz eta administratzeaz arduratuko da.



Merkataritza sailaren zuzendaria Nile Celaya izango da, eta multinazionalekin komunikazio ona izateaz eta merkatu ikerketen bidez bezeroak aurkitzeaz arduratuko da.



Azkenik, administrazioaren zuzendaria Naia Rodríguez izango da, eta konpainiaren baliabideak antolatzeaz, zuzentzeaz eta kontrolatzeaz arduratuko da, antolaketa-helburuak lortzeko.

